

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 55/2019 FORU DEKRETUA
maiatzaren 21ekoa, Irabazteko asmorik gabeko
erakundeen zerga-araubidea eta mezenasgorako zerga-
pizgarriak aplikatzeko Erregelamendua onesten duena
(BAO Maiatzaren 24koa)**

2019ko urtarrilaren 1ean, indarrean jarri zen Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko martxoaren 20ko 4/2019 Foru Arau berria, arlo horretako aurreko araudia hamabost urtez indarrean egon ondoren ordeztu duena. Orain, onetsi behar da foru-arau berri hori garatzeko erregelamendua. Erregelamendu hau bost kapitulutan banatutako 18 artikulutan, xedapen gehigarri batean eta xedapen iragankor batean egituratzen da, eta, beronen bidez, foru-arau horren arautze berriaren zenbat alderdi garatzen dira.

Lehenik, I. kapituluan, zenbait manu garatzen dira, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubide bereziarekin lotuta daudenak. Kapitulu nabarmendu beharreko berritasunetako bat hau da: arau onartu da halako erakundeek interes orokorreko helburuak zeharka lortzen dituztenean ere aplikatu ahal izango dutela zerga-araubide berezia zenbait mugarekin; hala, eragotzi egingo dira administrazio-interpretazio murriztaileak, arlo honetako arautze substantiboarekin zein fiskalarekin uztartzen zailak direnak. Gainera, memoria ekonomikoan datu gehigarriak sartu dira, dimentsio txikiko erakundeek arintzeko Tributu-administrazioarentzat erabilgarritasun gutxiko memoria ekonomikoa egin beharra dakarren zama. Ondorioz, aurrerantzean, memoria hori egiteko betebeharrak salbuesita egongo dira diru-sarreratan gehienez 10.000 euroko bolumena duten erakundeak. Azkenik, I. kapitulu honetan, zenbait kasu jaso dira, jarduera ekonomiko salbuesitatzat joko direnak, helburu batekin jaso ere: segurtasun juridikoa gehitu nahi da, zerga-araubide berezia aplikatzen zaien erakundeek bete behar dituzten interes orokorreko xedeak betetzeari dagokionez.

II. kapitulu (artikulu bakarrekoa), berriz, zehaztu egiten da «konpentsazio ekonomikoa» edo «erreputazio-kompentsazioa» terminoa, zeina mezenasgoaren munduaren errealitatea kontuan hartuta berritasun gisa sartu zen Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauan. Orobat, zehazten da zer kasutan ulertu behar den irabazi-asmorik gabeko erakunde bati ekarpen bat egin dionak jasotzen duen konpentsazioak halako izaera duela, ez interpretatzeko izaera hori ez dagoela lotuta irabazteko -asmorik gabeko ekarpenen kontzeptuarekin.

Hurrengo kapituluak, ezartzen da zer prozedurari jarraitu behar zaion irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga-araubide berezia aplikatzeko. Foru-arauan bertan xedatzen denez, lehen nahikoa zen Tributu-administrazioari komunikazio soil bat egitea; aurrerantzean, berriz, eskabide baten bidez izapidetuko da, zeinarekin batera zenbait datu eta dokumentu aurkeztuko diren. Izan ere, egiaztatu nahi da erakundeak betetzen dituela zerga-araubide berezia aplikatzeko eskatzen diren baldintzak, eta horrek berekin dakar berme handiagoa izatea mezenasgoaren zerga-araubidean, bai eta ekarpena egiten duten pertsonentzat ere.

IV. kapituluak informazio-betebeharrak arautzen ditu, bai eta emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazioak benetan egin direla nola justifikatu behar den ere. Berritasunen artean, honako hauek nabarmendu behar dira: batetik, mezenasgoaren onuraduna den erakundeak eredu informatiboa aurkezteko, aurrerantzean ez da beharrezkoa izango ekarpena egiten duen pertsonak ziurtagiria eskatzea, eta, bestetik, Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 26.3 artikuluan xedatutako prozedura ezarri da, salbuespen-kasuetan eredu informatiboan zenbait datu ez sartzeko baimena lortzeko

Halaber, zehaztu egiten da erakunde ez-egoiliar jakin batzuei ekarpenak egiten dizkien pertsonak nola justifikatu behar duen justifikazio-dokumentazioa aurkeztu beharra bete duela, eta betebeharrak hori betetzetik salbuesteko kasua ezartzen da, irabazteko asmorik gabeko erakundeak berak eredu informatiboa aurkeztu behar badu.

Azken kapituluak, lehenengo atalean, interes orokorreko jardueretan eginiko gastuen kengarritasunerako prozedura garatzen da. Bigarren atalean, ezartzen du zer prozedurari jarraitu behar zaion jarduera jakin batzuk lehentasunezkoztat jotzeko. Hori, orain arte, urtero onetsitako erregelamendu-lerruneko zenbait xedapenetan egon da arauturik. Halaber, adierazten da zer prozedura aplikatu behar den lehentasunezko jarduerak sustatzeko diren zerbitzuen doako prestazio jakin batzuek sor dezaten mezenasgoaren ziozko pizgarriak aplikatzeko eskubidea. Azkenik, V. kapituluaren hirugarren atalak aztergai ditu ohiz kanpoko interes publikoa duten gertaerei laguntza emateko programak.

Erregelamenduari amaiera emateko, batetik, aurreko erregelamendu-arauketatik jaso den xedapen gehigarri bat dago, elizen eta erlijio-konfesioen berezitasunak arautzen dituen, eta, bestetik, xedapen iragankor bat. Azken horren bidez, ezartzen da zer baldintza bete behar dituzten aurreko foru-arauan (1/2004 Foru Araua, otsailaren 24koa, Irabazitzekoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzkoa) xedatutako zerga-araubide berezia aplikatzen aritu diren irabazteko asmorik gabeko erakundeek, baldin eta nahi badute aplikatu diezaieten 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak dituen zerga-araubide berezia.

Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua bete da, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari dagokionez.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2019ko maiatzaren 21eko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra. Onestea irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga-araubidea eta mezenasgorako zerga-pizgarriak aplikatzeko Erregelamendua.

Irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga-araubidea eta mezenasgorako zerga-pizgarriak aplikatzeko Erregelamendua onesten da, eta haren testua jarraian txertatzen.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudia.

Aldaketak egiten dira Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudian (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori); hona zer aldaketa egiten zaizkion:

Bat. Berridatzi egiten da 13. artikuluan b) letraren 3. apartatua; honela geratzen da idatzita:

«3. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren II. tituluaren araututako zerga-araubide berezia aplikatzeko edo haren aplikazioari uko egiteko eskaera».

Bi. Berridatzi egiten da 17. artikulua 3. apartatuaren p) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«p) Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren II. tituluan araututako zerga-araubide berezia aplikatzeko eskatzea».

Hiru. Berridatzi egiten da 18. artikulua 2. apartatuaren m) letra, eta honela geratzen da idatzita:

«m) Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren II. tituluan araututako zerga-araubide berezia aplikatzeko eskatzea edo haren aplikazioari uko egitea».

Bigarrena. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga.

Edukirik gabe uzten da 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsizen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 117. Artikuluaren 1. apartatua.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra. Arauen indargabetzea.

Foru-dekretu hau indarrean jartzean, indargabetuta geratuko dira beronetan xedatutakoari aurka egiten dioten lerrun bereko edo beheragoko xedapen guztiak eta, bereziki, uztailaren 20ko 129/2004 Foru Dekretua, Irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga araubidea eta mezenasgorako zerga pizgarriak aplikatzeko Araudia onesten duena.

AZKEN XEDAPENA

Lehena. Indarrean jartzea.

1. Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.
2. Foru-dekretu honen bidez onesten den erregelamenduaren xedapenek 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietan izango dituzte ondorioak.

Bigarrena. Araudiari buruzko aipamenak.

Uztailaren 20ko 129/2004 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga araubidea eta mezenasgorako zerga pizgarriak aplikatzeko Araudian egiten diren aipamen guztiak foru-dekretu honek onartzen duen zerga araudiaren kasuan kasuko manuei ere egiten zaizkiela ulertuko da.

Hirugarrena. Ahalmena ematea.

Ahalmena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru-diputatuari, foru-dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan. Bilbon, 2019ko maiatzaren 21ean.

I. KAPITULUA

IRABAZTEKO ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN ZERGA-ARAUBIDE BEREZIA

1. artikulua. Interes orokorreko xedeak izatea.

Irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga-araubide berezia aplikatzeko, Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 4. artikuluan adierazitako erakundeek zuzenean bete behar dute foru-arau horren 5.1 artikuluan ezarritako baldintza, hau da, interes orokorrekoxedeak izatea.

Hala ere, interes orokorreko xedeak zeharka ere lortu ahal izango dira, erakundeak jarduera irabazteko asmorik gabeko beste erakunde baten edo batzuen bidez egiten badu (foru-arau horren 4. eta 5. artikuluetan definiturikoak) eta, gainera, xedeak zeharka lortu nahi dituen erakundeak bitarteko materialak zein giza baliabideak baditu proiektuak nola gauzatzen ari diren eta emandako funtsak zehazki nola erabiltzen diren modu aktiboan jarraitu eta kontrolatzek.

2. artikulua. Administrazio- eta kudeaketa-gastuak.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 5. artikulua 2. eta 3. apartatuaren xedatutakoaren ondorioetarako, administrazio- eta kudeaketa-gastutzat joko dira erakundearen ondarea osatzen duten ondasun zein eskubideen administrazioak zuzenean eragindakoak, bai eta patronatuko kideek, estatutu-ordezkariek eta gobernu-organoko kideek beren kargua betetzean sortutakoak ere. Beharrezkoa izango da gastuok behar bezala justifikatuta egotea eta gastuak itzultzeko eskubidea izatea indarrean den legeriarekin bat.

Administrazio- eta kudeaketa-gastuen zenbatekoak ezingo du gainditu kopuru hauen arteko handiena: funts propioen %5 edo urteko ekitaldiko soberakinen %20, behin diru-sarrerak lortzeko egindako gastuak —erakundearen helburuak betetzeari dagozkionak izan ezik— kendu ondoren.

3. artikulua. Irabazteko asmorik gabeko erakundeen ordezkari izendatutako administratzaileen ordainsariak.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 5. artikulua 6. apartatuaren azken paragrafoan adierazitako atxikipena egin behararen salbuespena aplikatzeko, ordaintzaileak egiaztatu beharko du administratzaileen ordainsariak jaso dituztela administratzailekok ordezkatzeko dituzten irabazteko asmorik gabeko erakundeek.

4. artikulua. Memoria ekonomikoa.

- 1 Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 5.13 artikuluaekin bat irabazteko asmorik gabeko erakundeek aurkeztu behar duten memoria ekonomikoa honako informazio hau jasoko du:
 - a) Sozietateen gaineko Zergaren errenta salbuetsiak eta ez-salbuetsiak adieraziko dira, eta salbuetsiak direla-eta zehaztu beharko da Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 8. eta 9. artikuluen zer zenbakiren eta —hala dagokionean— zer letraren babesean dauden salbuetsita, haietako bakoitzaren diru-sarrerak eta gastuak adierazita. Halaber, adierazi beharko da zer kalkulu eta irizpide baliatu diren erakundeak lortu dituen errenten artean gastuak nola banatu erabakitzeko.
 - b) Erakundeak, orobat, bere estatutu-helburuak edo xedea betetzeko egin dituen proiektu edo jardueretako bakoitzari dagozkion diru-sarrerak, gastuak eta inbertsioak identifikatuko ditu. Proiektu bakoitzaren gastuak kategoriaka sailkatuko dira, hala nola langile-gastuak, kanpoko zerbitzuen ziozkoak edo material-gastuak.
 - c) Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 5.2 artikulua aipatzen dituen errentak eta diru-sarrerak kalkulatzeko modua zehaztuko da.
 - d) Identifikatu beharko dira salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoaren ondoriozko soberakinari dagozkion zenbatekoak, gastu kengarritzat jotzen direnak, baldin eta soberakin hori aplikatu bada Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 5.1 artikuluan adierazitako helburuak betetzearen ondoriozko kontabilitate-emaizta negatiboa konpentsatzeko.

- e) Erakundeak bere patronatuko kideei, estatutu-ordezkariei edo gobernu-organoko kideei ordaintzen dizkien diruzko edo gauzazko ordainsariak, bai eginkizunak betetzean sortu zaizkien gastuak itzultzeko erakundeak ordaintzen dizkienak, bai erakundeari berezko ez dituzten beste eginkizun batzuk eman dizkiotelako jaso dituztenak.
 - f) Erakundeak merkataritza-sozietateetan duen partaidetzaren ehunekoa, sozietate bakoitzaren identifikazioa, izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia adierazita.
 - g) Erakundeak partaidetza duen merkataritza-sozietateetan erakundearen ordezkari diharduten administratzaileek jasoriko ordainsariak, itzuli diren zenbatekoak adierazita.
 - h) Interes orokorreko jardueren arloan erakundeak sinatu dituen enpresa-lankidetzarako hitzarmenak, haietan parte hartzen duen lankidetzako pertsona eta jasotako zenbatekoak zehaztuta.
 - i) Halaber, adierazi behar da erakundea deseginez gero zer aurreikusten duten estatutuek erakundearen ondarearen erabilerari buruz, eta desegitea ekitaldian gertatu bada, zertarako erabili den ondare hori.
 - j) Mezenasgoaren lehentasunezko jarduerak, erakundeak halakorik egiten badu.
- 2 Aurreko zenbakian adierazitako memoria ekonomikoa ez zaie eskatuko zergaldian sarrera-bolumena 50.000 eurotik gorakoa izan ez duten erakundeei. Hala ere, egin beharko dute, betiere merkataritza-sozietateetan partaidetzarik ez badute.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, memoria ekonomikoa egitetik salbuetsita egongo dira zergaldian sarrera-bolumena 10.000 eurotik gorakoa izan ez duten erakundeei, betiere merkataritza-sozietateetan partaidetzarik ez badute.

- 3 Beren kontabilitate-araudiaren arabera urteko memoria egin behar duten erakundeek artikuluko honetako 1. zenbakiko informazioa sartu ahal izango dute kontabilitate-memorian, memoria ekonomikoa egiteko betebeharra betetzeko.

Kasu horretan, Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriari buruzko Foru Arauak memoria ekonomikori dagokionez ezartzen duena betetzeko —horretarako baino ez—, erakunde horiek sozietateen gaineko zergaren autolikidazioarekin batera aurkeztu beharko dute memoria ekonomikoa, non eta ez zaien aplikatu behar aurreko zenbakian xedatutakoa.

5. artikulua. Ustiapen ekonomiko salbuetsiak.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriari buruzko Foru Arauaren 9. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek joko dira ustiapen ekonomiko salbuetsizat —betiere irabazteko asmorik gabeko entitatearen xedea edo helburua betetzeko garatzen badira—:

- a) Gizarte-ekintza sustatu eta kudeatzeko zerbitzuak emateko ustiapen ekonomikoen jarduera lagungarriak edo osagarriak, bai eta laguntza eta inklusio sozialaren arloetako zerbitzuak, hala nola elikatze-, ostatu- edo garraio-zerbitzu osagarriak.
- b) Ospitaleratze- edo osasun-laguntzako zerbitzuak emateko ustiapen ekonomikoen jarduera lagungarriak edo osagarriak, hala nola medikamentuak eramateko zerbitzuak edo elikatze-, ostatu- edo garraio-zerbitzu osagarriak.
- c) Musika-, koreografia-, antzerki-, zine- edo zirku-saioak antolatzeko diren ustiapen ekonomikoak.
- d) Irabazteko asmorik gabeko erakundeentzako diren ikastetxeek eta ikastetxe nagusiek elikatze-, ostatu- edo garraio-zerbitzuak emateko ustiapen ekonomikoak.

- e) Erakusketak, hitzaldiak, mahainguruak, ikastaroak edo mintegiak antolatzeko ustiapen ekonomikoak.
- f) Liburuak, aldizkariak, liburuxkak, ikus-entzunezkoak eta multimedia-materiala egin, editatu, argitaratu eta saltzeko ustiapen ekonomikoak.
- g) Kirola edo ariketa fisikoa egiten duten pertsona fisikoei kirol-zerbitzuak emateko ustiapen ekonomikoak, betiere zerbitzuok zuzenean lotuta badaude praktika horiekin, salbu eta kirol-ikuskizunekin lotutako zerbitzuen kasuan eta kirolari profesionalei emandakoen kasuan.

6. artikulua. Irabazteko asmorik gabeko erakundeek jasotzen dituzten errenta salbuetsiak atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharretik salbuetsirik daudela egiaztatzea.

Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 14. artikuluekin bat, irabazteko asmorik gabeko erakundeek atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharretik salbuetsita daude. Salbuespen hori, baina, egiaztatu egin behar da, hain zuzen, Zerga Zentsuen Ataleko buruak emandako ziurtagiriaren bidez, non hauek jasoko diren: erakundeak Tributu- administrazioari eskatu diola foru-arau horren II. tituluaren araututako zerga-araubide berezia aplikatzeko, haren aplikazioa onarturik daukala eta ez diola uko egin araubide berezi hori aplikatzeari.

Ziurtagiriak bere indarraldia ere jaso behar du: ziurtagiria egiten den egunean hasi, eta erakunde eskatzaileak indarrean duen zergaldia amaitzean bukatuko da.

**II. KAPITULUA
MEZENASGORAKO ZERGA-PIZGARRIAK**

7. artikulua. Konpentsazio sinbolikoa edo erreputazionala.

1. Emariak, dohaintzek, ekarpenek edo zerbitzuen doako prestazioek ez dute beren izaera galduko, nahiz eta halakoak egiten dituen pertsonaren edo erakundearen aldeko konpentsazio sinbolikoa edo erreputazional bat egin, betiere haien xede nagusia halakoaren publizitatea edo propaganda ez bada.

Kompentsazio sinbolikoa edo erreputazionala egongo da konpentsazio horren merkatu-balioa emari, dohaintza, ekarpen edo zerbitzuen doako prestazioarena baino nabarmen txikiagoa denean; baina beharrezkoa izango da, beti, eragiketaren izaeratik ondorioztatu ahal izatea konpentsazioa jaso duenak egindako jarduketaren xede nagusia dela interes orokorreko xedeak betetzea.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, inoiz ere ez da sinbolikotzat edo erreputazionaltzat hartuko konpentsazioa, baldin eta emari, dohaintza, ekarpen edo zerbitzuen doako prestazioaren eta lortuko den konpentsazioaren artean baliokidetzatzerlazioa badago.
3. Konpentsazio sinbolikotzat edo erreputazionaltzat honako hauek hartuko dira:
 - a) urteko memorian irabazteko asmorik gabeko erakundea aipatzea;
 - b) eskerrak emateko agiri pertsonalizatuak;
 - c) oroitzapenezko plakak;
 - d) kortesiazko bilerak egitea zuzendaritza batzordeko edo patronatuko kideekin;
 - e) dohaintza emateko ekitaldi publikoak egitea.

III. KAPITULUA
IRABAZTEKO ASMORIK GABEKO ERAKUNDEEN ZERGA-ARAUBIDE BEREZIA
APLIKATZEKO PROZEDURA

8. artikulua. Irabazteko asmorik gabeko erakundeei zerga-araubide berezia onartzeko prozedura.

1. Irabazteko asmorik gabeko erakundeek, Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren II. tituluan araututako zerga-araubidea aplikatu nahi badute, Tributu-administrazioari eskatu beharko diote hura aplikatzeko, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 45. artikuluan ezarritako prozedura orokorrarekin eta artikuluko honetan ezarritako berezitasunekin bat.

Betebehar bera izango dute onura publikoko kooperatibek eta ekimen sozialeko kooperatibek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko Foru Arauaren 53.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldin eta aplikatu nahi badute aurreko paragrafoan adierazitako zerga-araubide berezia.

2. Erakundeak Tributu-administrazioari aurkeztu behar dion eskabideak honako datuok izango ditu:

- a) Eskrituraren edo eratze-aktaren kopia eta estatutuena.
«Mortis causa» egintzen bidez eraturako fundazioen kasuan, eratze-eskrituraren ordeztu, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 2016ko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 8.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira eskritura horren baldintza berberak betetzen dituen agiria aurkeztu ahal izango da.

- b) Memoria bat, honako hauek azaltzen dituenak: erakundeak dituen interes orokorreko helburuak, haiek lortzeko egin nahi dituen jarduerak eta jardueraren ondorioz bereziki onuradun suertatuko diren entitateak edo kolektiboak.

- c) Txosten bat, erakundeak jarduerak nola finantzatuko dituen eta bere jardunak ekonomia zein gizartean zer eragin izango duen jasotzen duena.

- d) Dagokion erregistroan inskribatuta dagoela ziurtatzen duen agiria. Onura publikoko elkarteetan kasuan, onura publikoaren izaeraren onarpena egiaztatuko beharko da.

- e) Erakundearen legezko ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat, Irabazi asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 5. artikuluan ezarritako betekizunen betekizunari buruzkoa.

Onura publikoko kooperatiben eta ekimen sozialeko kooperatiben kasuan, erantzukizunpeko adierazpenak bere araubide fiskalean ezarritako berezitasunak betekiko ditu; Bizkaiko Lurralde Historikoko Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko Foru Arauan dago ezarrita araubide hori.

- f) Erakundea zerga-araubide berezia aplikatzeko eskubidearen erabilera bultzatzeko kasuetako batean ere ez dagoelako adierazpen espresua. Kasuok jasota daude Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 17. artikuluko 2. eta 3. apartatuetan eta lehen xedapen iragankorrean.

3. Erakundearen interes orokorreko helburuak zeharka lortzen badira, hau da, erregelamendu honen 1. artikuluan adierazitako moduan, orduan, aurreko zenbakian adierazitako informazioaz gainera, honako hauek ere aurkeztu beharko ditu erakundeak:

- a) Interes orokorreko helburuak gauzatzeko erabiliko den erakundearen identifikazioa.

- b) Erakundearen legezko ordezkariak sinatu beharko dute aurreko zenbakiko e) letran adierazitako erantzukizunpeko adierazpena, eta bertan aipatu beharko dute Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 4. eta 5. artikuluetan xedatutakoa betetzen dutela.
 - c) Azalpen-memoria bat, honako hauek jasotzen dituen: proiektuen gauzatzean jarraipen- eta kontrol-jarduera aktiboa egin dela, eta zehazki nola erabili diren emandako funtsak. Horrez gainera, erakunde eskatzaileak frogatu beharko du zer bitarteko material eta giza baliabide baliatu dituen.
4. Eskabidea Zentsuak Kontrolatzeko eta Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztuko da, enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan alta edo aldaketa eskatzeko dagokion deklarazioaren bidez, erakundeak zerga-araubide berezia —irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren II. tituluan jasoa— aplikatu nahi duen lehen zergaldia amaitu baino lehen.

...

Goiko 3. zenbakian adierazitako kasuan, baldin eta araubide berezia aplikatzeko ondorengo ekitaldietan zeharka lortzen baditu erakundeak interes orokorreko helburuak, Zentsuak Kontrolatzeko eta Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztu beharko ditu zenbaki horretan adierazitako informazioa eta dokumentazioa, betiere helburuak zeharka lortzen diren zergaldia hasi aurretik.

- 5. Ogasuneko zuzendari nagusiari egokituko zaio zerga-araubide berezia aplikatzeko onarpena ematea; horren berri emango zaio erakundeari, eta eskaera egin den zergaldian eta hurrengoetan izango ditu ondorioak, harik eta artikulua honen 6. Apartatuan adierazitako ukoa gertatu arte. Zergaldirik ez duten zergei dagokienez, zerga araubide berezi hau aipatutako zergaldietan sortzen diren zerga egitateei aplikatuko zaie.

Gehienez ere, sei hilabetean ebatziko da zerga-araubide berezia onartzeko artikulua honetan ezarritako prozedura, eskabidea aurkezten denetik aurrera edo Tributu administrazioak Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 45.3 artikuluan ezarritakoarekin bat egindako errekerimenduaren ondorioz erakundeak informazio gehigarria aurkezten duenetik aurrera.

- 6. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren II. tituluan araututako zerga-araubide berezia aplikatzeari uko egin nahi dionak Zentsuak Kontrolatzeko eta Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuari jakinarazi beharko dio, uko egiteak ondorioak izan ditzan nahi den zergaldiko lehen hiru hiletan, enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan alta edo aldaketa eskatzeko dagokion deklarazioaren bidez. Zergaldirik ez duten zergei dagokienez, ukoak ondoreak izango ditu ukoa jakinarazi den zergaldian, hain zuzen, Sozietateen gaineko Zergaren zergaldiaren hasieratik sortzen diren zerga-egitateetan.
- 7. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren II. tituluan araututako zerga-araubide berezia aplikatzeari ezeztatzea dagokionean, Ogasuneko zuzendari nagusiari egokituko zaio zerga-araubide berezia aplikatzeko ezeztatzea ematea eta horren berri emango zaio erakundeari, eta horretan ezartzen diren ondorioak izango ditu.

9. artikulua. Zerga-araubidea aplikatzea tokiko tributuen ondorioetarako.

- 1. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 18.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, irabazteko asmorik gabeko erakundeek kasuan kasuko Tributu-administrazioaren aurrean egiaztatu beharko dute erregelamendu honen 8.5 artikuluan adierazirik onarpena lortu dutela, edo hala badagokio, foru-arau horren 19.1.a) artikuluan ezarritako araubide bereziak, foru-arau horren II. tituluan jasotako araubide berezia salbu, aplikatzen direla, edo foru-arau horren II. tituluan jasotako araubide berezia aplikatzeari uko egin diotela.

2. Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga ez ordaintzeko salbuespena dela eta, aurreko zenbakian aipatzen diren onarpena, araubide bereziak aplikatzea edo uko egitea ondasun higiezinaren kokalekua kontuan hartuta eskumena duen udalaren aurrean egiaztatzea beharko da.
3. Ondasun higiezinaren gaineko zerga eta ekonomi jardueren gaineko zerga ez ordaintzeko salbuespena dela eta, dagokion udalera edo, kudeaketa egiteko eskumena duenean, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailera jo beharko da, 1. Zenbakian aipatutako onarpena, araubide bereziak aplikatzea edo uko egitea egiaztatzeko.
4. Erregelamendu honen 8. artikulua xedatutakoarekin bat tokiko tributuei dagokienez zerga-araubide berezia aplikatzeko eskubidea duten zergadunek tributu horiei dagozkien tributu-zorrak ordaindu badituzte, sartutako zenbatekoak itzul dakizkiekeen eskubidea izango dute.

IV. KAPITULUA

INFORMAZIOA EMATEKO BETEBEHARRA ETA AGIRI BIDEZKO JUSTIFIKAZIOA

10. artikulua. Jasotako emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazioei buruzko eredu informatiboa.

1. Kengarri diren emariak, dohaintzak, ekarpenak eta zerbitzuen doako prestazioak benetan egin direla justifikatzeko, erakunde onuradunak berariaz onartuko den eredu informatiboa aurkeztu beharko du, zeina foru-agindu bidez onetsiko duen Ogasun eta Finantza Saileko titularrak; eta, harekin batera, aurkeztu beharrekoa izango da Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 26.2 artikuluan jasotzen den dokumentazioa.

Betiere, erakunde onuradunak adierazi beharko du, bere identifikazio-datuez gainera, ekarpena egin duten erakunde edo pertsonen buruzko informazio hau:

- a) Izen-deiturak, sozietatearen izena edo izendazioa.
 - b) Identifikazio fiskaleko zenbakia.
 - c) Emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazioen zenbatekoa. Gauzazko emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazioen kasuan, emaleak, ekarpena egin duenak edo zerbitzuen prestatzaileak dohaintzan emandakoaren edo ekarpenaren balioespen bat eman beharko die onuradun diren erakundeei, Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 21. Artikuluan xedatutakoarekin bat.
 - d) Orobat, aipatu behar da dohaintza edo ekarpena mezenasgoaren lehentasunezko jardueretarako jasotzen den.
 - e) Egutegiko urtean zehar gertatu diren dohaintzen ezeztatzei buruzko informazioa, halakorik jazo bada.
2. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 26.3 artikuluaekin bat, erakunde onuradunak Zentsuak Kontrolatzeko eta Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuari baimena eskatu ahal izango dio artikulua honetan aipatzen den eredu informatiboan ez sartzeko emari, dohaintza, ekarpen edo zerbitzuen doako prestazioak, baldin eta pertsona edo erakunde emaleak ez baditu aplikatzen foru-arau horretan ezarritako pizgarri fiskalak, eta emari, dohaintza, ekarpen edo zerbitzuen doako prestazioei buruz eman beharreko informazioa lortzeak kostu handiak badakarkio erakundeari. Eskabidea izapidetzeko, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 45. artikuluan ezarritako prozedurari eta artikulua honetan adierazitako berezitasunei jarraituko zaie.

Horretarako, erakundeak justifikatu beharko ditu aurreko paragrafoko inguruabarrak, zeinetan oinarritzen den pertsona edo erakunde jakin batzuei dagokienez informazio-

betebeharra bete behar ez izatea. Eskabidea eredu informatiboa aurkezteko epea hasi baino hiru hilabete lehenago aurkeztu behar da, gutxienez.

Tributu-administrazioak eskaera aurkeztu den egunaren edo errekeritutako informazio gehigarria jaso duen egunaren ondorengo hiru hilabeteen barruan ebatziko du.

11. artikulua. Egoiliar ez diren erakunde batzuen alde egindako emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazio kengarrien justifikazioa.

1. Erakunde onuraduna Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 19.2 artikuluan jasotako erakundeetako bat denean, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute onura fiskala aplikatzen duten zergadunek emari, dohaintza eta ekarpen kengarriak benetan egin direla justifikatzeko:
 - a) Foru-arau horren 26.1. zenbakian aipatzen den eredu informatiboan jaso behar den informazioa duen dokumentua; harekin batera, artikuluko horretan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da, hala badagokio.
 - b) Erakunde onuradunak Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 4. eta 5. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen agiria.

Aurrekoa gorabehera, onura fiskala aplikatzen duten zergadunek ez dute aurkeztu beharko zenbaki honetan ezarritako dokumentazioa, irabazteko asmorik gabeko erakundeen alde egin dituzten emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazioei buruzkoa, baldin eta erakundeok halakoak direla-eta eredu informatiboa aurkeztu behar badute.

2. Aurreko zenbakian adierazitako dokumentazioarekin batera, aurkeztu beharko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa, sozietateen gaineko zergarena edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergarena, kontuan hartuta norik egin dituen emari, dohaintza, ekarpen eta zerbitzuen doako prestazio horiek.

V. KAPITULUA

INTERES OROKORREKO JARDUERETAN, LEHENTASUNEZKO JARDUERETAN ZEIN OHIZ KANPOKO INTERES PUBLIKOA DUTEN GERTAEREI LAGUNTZA EMATEKO PROGRAMETAN EGINIKO GASTUETARAKO AURREIKUSITAKO ONURA FISKALAK APLIKATZEKO PROZEDURA

LEHEN ATALA

INTERES OROKORREKO JARDUERETAN EGINDAKO GASTUAK

12. artikulua. Interes orokorreko jardueretako gastu kengarriak.

1. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 29. artikuluan xedatutakoarekin bat, egoitza iraunkorraren bidez diharduten zergadunen Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez Egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarria zehazteko, edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunen jarduera ekonomikoaren errendimendu garbia kalkulatzeko, interes orokorreko helburuetarako egindako gastuak kengarritzat hartuko dira.
2. Diru-kopuru horiek kentzeko, entitate edo pertsona interesdunek idatziz jakinarazi behar diote zerga Administrazioari interes orokorreko jarduera horiek egin dituztela eta zenbatekoa izan den gastua. Jakinarazpen horrekin batera, memoria bat aurkeztu beharko dute, non azaldu eta justifikatzen duten jarduerak zertan laguntzen duen interés orokorreko helburuak betetzen (Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 5.1 artikuluan jasotzen dira helburuok).

Gastuaren kenkaria egin behar den ekitaldiaren itxiera baino lehen egingo da jakinarazpen hori.

BIGARREN ATALA LEHENTASUNEZKO JARDUERAK

13. artikulua. Mezenasgoaren ondorioetarako jarduerak lehentasunezkoztat jotzeko eskatzeko prozedura.

Pertsona fisikoek edo juridikoek mezenasgoaren ondorioetarako nahi badute beren jarduerak lehentasunezkoztat jo daitezten Bizkaiko Lurralde Historikoan, zenbait arlotan (ondarea eta kultura; kultura-zabalkundea; euskara, kirol eta gazteriaren sustapena; garapenerako lankidetzeta eta kultura-aniztasuna; gizarte-inklusioa; hirugarren sektore soziala; zahartzea; emakume eta gizonen desberdintasunaren arloa), hala eskatu beharko dute, urtero, lehentasunezkoztat jotze horrek ondorioak izan behar dituen ekitaldiko abenduaren 1a baino lehen (aipatutako foru arauaren 32.etik 42.era bitarteko artikuluetan xedatutakoaren babesean), Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 45. artikuluan ezarritako prozedurarekin eta artikulua honetan adierazitako berezitasunekin bat.

Eskaera eta hurrengo artikuluan arlo bakoitzerako adierazitako dokumentazioa aurkezteko, arlo bakoitzerako artikulua horretan zehazten den Bizkaiko Foru Aldundiko zerbitzura edo zuzendaritzara jo beharko da.

Eskaerak egoitza elektronikoaren bidez ere aurkeztu ahal izango dira, behin Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren izapideen katalogoan sartu ondoren mezenasgoaren ondorioetarako arlo bakoitzeko jarduerak lehentasunezkoztat jotzeko eskaerak izapidetzeko prozedurak.

14. artikulua. Agiri bidezko justifikazioa eta aurkezteko lekua.

Pertsona fisikoek edo juridikoek beren jarduerak lehentasunezkoztat jo daitezten nahi badute, beherago adierazitako lekuetan aurkeztu beharko dituzten eskaera eta beren jarduerari dagokion lehentasunezko jardun-arloaren araberrako dokumentazioa, honako hau, hain zuzen:

- a) Ondare-programak: esku hartzeko proiektu hauen bitartez kontserbatzeko, zaharberritzeko eta hobetzeko lanak egiten dira Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legean aipatzen diren babes bereziko ondasun higiezinetan, lehentasuneko jarduerak deklaratzeko eskatuta. Proiektuak Euskara eta Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zerbitzuaren bulegoetan utzi behar dira.
- b) Kultura-zabalkundearen arloko programak eta jarduerak: lehentasunezkoztat jotzeko eskatu den kultura-zabalkunderako jarduerak egingo duen erakundeak egindako proiektua; bertan, aurrekontua jaso behar da, hala badagokio. Proiektua Euskara eta Kultura Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu behar da.
- c) Euskararen sustapenaren arloko programak eta jarduerak: lehentasunezkoztat jotzeko eskatu den euskararen sustapenerako jarduerak egingo duen erakundeak egindako proiektua; bertan, aurrekontua jaso behar da, hala badagokio. Proiektua Euskara eta Kultura Saileko Euskara Zuzendaritza Nagusiaren bulegoetan aurkeztu behar da.
- d) Kirol jarduerak: lehentasunezkoztat jotzeko eskatu den kirol-jarduerak egingo duen erakundeak egindako proiektua; bertan, aurrekontua jaso behar da, hala badagokio. Proiektua Euskara eta Kulturako Foru Saileko Kirol Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu behar da.
- e) Gazteen arloko jarduerak: lehentasunezkoztat jotzeko eskatu den jardueraren edo proiektuaren programazioa, irabazteko asmorik gabeko erakundeak egindakoa. Programa horretan, jarduerak edo proiektuaren aurrekontua jasoko da, eta Euskara eta Kultura Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu behar da, edo gazteriaren gaiari buruzko politika integralen arloan eskumena duen Bizkaiko Behatokiaren bulegoetan.

- f) Garapenerako lankidetzaren, kultura-aniztasunaren eta gizarte-inklusioaren arloetako programak eta jarduerak: lehentasunezkoztat jotzeko eskatu den jardueraren egingo duen irabazteko asmorik gabeko erakundeak egindako proiektua; bertan, aurrekontua jaso behar da, hala badagokio. Proiektu hori Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko Saileko berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitateerako Zuzendaritza Nagusiaren bulegoetan aurkeztu behar da.
- g) Hirugarren sektore sozialaren arloko programak eta jarduerak: lehentasunezkoztat jotzeko eskatu den jardueraren egingo duen erakundeak egindako proiektua; bertan, aurrekontua jaso behar da, hala badagokio. Proiektua Gizarte Ekintza Sailaren bulegoetan aurkeztu behar da.
- h) Zahartzearen arloko programak eta jarduerak: lehentasunezkoztat jotzeko eskatu den jardueraren egingo duen erakundeak egindako proiektua; bertan, aurrekontua jaso behar da, hala badagokio. Proiektua Gizarte Ekintza Sailaren bulegoetan aurkeztu behar da.
- i) Emakume eta gizonen berdintasunaren arloko programak eta jarduerak: lehentasunezkoztat jotzeko eskatu den jardueraren egingo duen erakundeak egindako proiektua; bertan, aurrekontua jaso behar da, hala badagokio. Proiektu hori Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko Saileko berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitateerako Zuzendaritza Nagusiaren bulegoetan aurkeztu behar da.

15. artikulua. Eskumena.

Mezenasgoaren ondorioetarako Bizkaiko Lurralde Historikoan jarduerak lehentasunezkoztat jotzeko deklarazioa foru-agindu bidez onetsiko du arloan eskumena duen saileko foru-diputatuak, aurreko 13. eta 14. artikuluetan xedatutakoarekin bat, Bizkaiko Behatokiak lehentasunezkoztat jotako kasuan izan ezik. Izan ere, kasu horretan, Bizkaiko Behatokiaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen bidez onetsiko da deklarazioa. Foru-agindua zein ebazpena interesduneri jakinaraziko zaie. Ekitaldi bakoitzeko urtarrian, aurreko ekitaldian sail bakoitzak lehentasunezkoztat jotako jardueren zerrenda argitaratuko da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

16. artikulua. Mezenasgoaren ondorioetarako lehentasunezkoztat jotako jardueren memoria.

1. Lehentasuneko jarduerak garatzeko ekarpenak jasotzen dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek ekarpen horien kontura finantzatutako jardueren memoria bat bidali beharko diote jardun-eremuaren arabera eskumena duen Bizkaiko Foru Aldundiko sailari, zeinak jardueraren horien gauzatzea gainbegiratu duen. Memoria horretan, honako hauek zehaztuko dira: jasotako ekarpenen zerrenda, ekarpen bakoitza zer jardueratarako erabili den zehaztuta; ekarpenetako bakoitzaren zenbatekoa; zer egunetan jaso diren, eta ekarpena egin duten pertsonen identifikazio-datuak.
2. Aurreko apartatuan aipatutako memoria aurkezteko epea bi hilabete izango da, jardueraren finantzatua izan den ekitaldia amaitzen denetik aurrera zenbatu behar direnak.
3. Jardun-eremuaren arabera eskumena duen Bizkaiko Foru Aldundiko sailak egiaztagiri bat emango du, ziurtatzeko ekarpenen bidez finantzatu diren jarduerak dagokion ekitaldian lehentasunezkoztat jotako artean daudela eta jarduerok eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela. Egiaztagiri hori interesdunari bidaliko zaio, eta bertan informazio hau jaso beharko da: onuradunen eta ekarpena egin duen pertsona edo erakundearen identifikazio-datuak, ekarpen bakoitzaren zenbatekoa eta egin den eguna.

17. artikulua. Zerbitzuen doako prestazio jakin batzuek lehentasunezko jarduerak direla-eta duten kengarritasuna.

1. Zerbitzuen doako prestazioak hauek dira: Irabazi-asmorik gabeko erakundearen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 42.1.b) artikuluan adierazitako jarduerak sustatzeko balio duten propaganda- eta publizitate-

gastuak egitea, betiere haien edukiak jardueren zabalduak ahalbidetzen badu. Besteak beste:

- a) Sustapen edo informaziorako material grafiko edo ikus-entzunezko materialaren ekoizpena eta edizioa, hain zuzen: liburuxkak, kartelak, gidak, bideoak, ikus-entzunezko euskarriak edo bestelakoak, betiere doan banatzekoak badira eta gertakariaren publizitate-euskarri gisa balio badute.
 - b) Pabiloi espezifikoak instalatu edo muntatzea nazioko zein nazioarteko azoketan, non gertaera sustatzen den.
 - c) Gertaerarekin lotutako publizitate-kanpainak egitea, naziokoak zein nazionalitatekoak, lehentasunezko jardueraren izena eta/edo logotipoa zergadunaren publizitate-euskarrietan txertatzen den kasuak barne, betiere, neurri jakin bat eta/ edo iraupen jakin bat bete behar da, publizitatea zuzen ikusten dela edo zuzen irakurtzen dela ahalbidetzeko.
 - d) Komunikabideek doako espazioak lagatzea, gertaera sustatzeko iragarkiak txertatzeko.
2. Kenkariak aplikatzeko zerbitzuen doako prestazioetan (Irabazi-asmorik gabeko erakundearen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriari buruzko Foru Arauaren 42.1.b) artikuluan jasota daude), gastua edo inbertsioa egin duen erakundeak eta erakunde onuradunak batera aurkeztu beharko diote zerga Administrazioari eskaera bat, lehentasunezko jarduerara zabaldu eta sustatzeko proiektuaren deskribzioa izango duena. Horrez gainera, eskaeran adierazi beharko da zer ondorio espero diren interes orokorreko helburuak betetzeari dagokionez; orobat, jaso beharko du gastua edo inbertsioa egiten duen erakundeari zerbitzuen doako prestazioak dakarkion gastuaren kuantifikazioa ere. Eskabidea gastuak edo inbertsioak egin aurretik zerga Administrazioari aurkeztu beharko zaio eta, izapidetzeko, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 45. artikuluan ezarritako prozedurari eta artikuluan honetan adierazitako berezitasunei jarraituko zaie.

Eskabidea administrazio-isiltasunez onetsi bada (Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 45.6 artikuluaekin bat) eta eskatzen den kalifikazioa berriaz aipatzen ez bada eskaeran, ulertuko da publizitate-euskarriaren edukia ez dagokiola beren-beregi lehentasunezko jarduerara horien zabalduari.

HIRUGARREN ATALA

OHIZ KANPOKO INTERES PUBLIKOA DUTEN GERTAEREI LAGUNTZA EMATEKO PROGRAMAK

18. artikulua. Ohiz kanpoko interes publikoa duten gertaerei laguntza emateko Programak.

1. Irabazi-asmorik gabeko erakundearen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriari buruzko Foru Arauaren 43. artikuluan aipatzen den foru-dekretuak aratuko du zer prozedura erabiliko den ohiz kanpoko interes publikoa duten gertaerei laguntza emateko programetan aurreikusitako onura fiskalak aplikatzeko.
2. Tributu-administrazioak egiaztatu ahal izango du atal honetan aipatzen diren onura fiskalak aplikatzeko baldintzan betetzen diren, eta, hala badagokio, egin beharreko erregularizazioa praktikatu du.
3. Aurreko artikulua 1. zenbakian xedatutakoa aplikatuko zaie kasuan kasuko gertaera sustatzeko balio duten urte anitzeko propaganda- eta publizitate-gastuei.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra. Eliza Katolikoa eta bestelako elizak, konfesioak eta erlijio-komunitateak: zerga-araubide berezia aplikatzea, eta atxikipenak edo konturako sarrerak ez egiteko salbuespena egiaztatzea.

1. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 47.1 artikuluan aipatutako erakundeek ez dituzte egin beharko erregelamendu honen 8. eta 9. artikuluetan eta xedapen iragankorrean araututako izapideak, baldin eta erabakitzen badute foru-arau horren 7.etik 18.era bitarteko artikuluetan ezarritako zerga-araubide berezia aplikatzea. Zerga-araubide hori zuzenean aplikatuko du erakundeak berak, aitortu edo likidatu behar diren tributuen kasuan, eta Tributu-administrazioak, gainerako kasuetan.

Erakundeok egiaztatu beharko dute atxikipena edo konturako sarrerak egiteko betebeharetik salbuetsita daudela (salbuespen hori Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 14. artikuluan jasotzen da), eta, horretarako, interesdunak eskatuta Ogasun eta Finantza Saileko organo eskudunak emango duen indarraldi mugagabeko ziurtagiria erabiliko da, non egiaztatuko den erakundea 47. artikulua 1. apartatuan sartzen dela. Eskaezan, orobat, erakundearen nortasuna eta izaera egiaztatu beharko dira, erakundea Justizia Ministerioko Erljio Erakundearen Erregistroan inskribaturik dagoela ziurtatzen duen agiriaren bidez.

2. Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzko Foru Arauaren 46. eta 47.2 artikuluetan aipatutako erakundeei aplikatuko zaie erregelamendu honen 6., 8. eta 9. artikuluetan eta xedapen iragankorrean xedatutakoa, zerga-araubide berezia aplikatzeko eskaerari eta egiaztatzeari dagokienez, bai eta atxikipena edo konturako sarrera egiteko betebeharetik salbuetsita geratzeko eskubidea egiaztatzeari dagokionez.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra. Zerga-araubide berezia irabazteko asmorik gabeko erakundeei aplikatzea.

1. Irabazteko asmorik gabeko erakundeak 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako lehen zergaldiko lehen egunean aplikatzen hasi badira otsailaren 24ko 1/2004 Foru Arauaren II. tituluan adierazitako zerga-araubide berezia (foru-arau hori Irabazizkoak ez diren erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriei buruzkoa da), orduan, jakinarazpen bat aurkeztu beharko diote Tributu-administrazioari, xedapen iragankor honekin ezarritakoarekin bat.

Betebehar bera izango dute onura publikoko kooperatibek eta ekimen sozialekoek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko Foru Arauaren 53.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, baldin eta aplikatu izan badute aurreko paragrafoan adierazitako zerga-araubide berezia.

2. Jakinarazpenean datu hauek eman behar dira:
 - a) Eskrituraren edo eratze-aktaren kopia eta estatutuena.
«Mortis causa» egintzen bidez eratutako fundazioen kasuan, eratze-eskrituraren ordean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 2016ko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 8.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira eskritura horren baldintza berberak betetzen dituen agiria aurkeztu ahal izango da
 - b) Memoria bat, honako hauek azaltzen dituen: erakundeak dituen interes orokorreko helburuak, haiek lortzeko egin nahi dituen jarduerak, eta bere jardueraren ondorioz bereziki onuradun suertatuko diren entitate edo kolektiboak.

- c) Txosten bat, erakundeak jarduerak nola finantzatuko dituen eta bere jardunak ekonomia zein gizartean zer eragin izango duen jasotzen duena.
 - d) Dagokion erregistroan inskribatuta dagoela ziurtatzen duen agiria. Onura publikoko elkarteetan kasuan, onura publikoaren izaeraren onarpena egiaztatu beharko da.
 - e) Erakundearen legezko ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat, Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriari buruzko Foru Arauaren 5. artikuluan ezarritako baldintzen betetzeari buruzkoa.
3. Erakundearen interes orokorreko helburuak zeharka lortzen badira, hau da, erregelamendu honen 1. artikuluan adierazitako moduan, orduan, aurreko zenbakian adierazitako informazioaz gainera, honako hauek aurkeztu beharko ditu erakundeak:
- a) Interes orokorreko helburuak gauzatzeko erabiliko den erakundearen identifikazioa.
 - b) Aurreko zenbakiko e) letran adierazitako erantzukizunpeko adierazpena halako erakundearen legezko ordezkariak sinatu beharko dute, eta, bertan, Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriari buruzko Foru Arauaren 4. eta 5. artikuluetan xedatutakoa betetzen dutela aipatu beharko dute.
- Onura publikoko kooperatiben eta ekimen sozialeko kooperatiben kasuan, erantzukizunpeko adierazpenak bere araubide fiskalean ezarritako berezitasunak beteko ditu; Bizkaiko Lurralde Historikoko Kooperatiben Araubide Fiskalari buruzko Foru Arauan dago ezarrita araubide hori.
- c) Azalpen-memoria bat, honako hauek jasotzen dituenak: proiektuen gauzatzean jarraipen- eta kontrol-jarduera aktiboa egin dela, eta zehazki nola erabili diren emandako funtsak. Horrez gainera, erakunde eskatzaileak frogatu beharko du zer bitarteko material eta giza baliabide baliatu dituen
4. Jakinarazpena Zentsuak Kontrolatzeko eta Udal Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan aurkeztuko da, enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen zentsuan aldaketa eskatzeko dagokion deklarazioaren bidez, xedapen iragankor honen 1. apartatuan aipatzen den zergaldia amaitu baino lehen.
5. Xedapen iragankor honetan aipatzen den jakinarazpena epe barruan ez aurkezteak ondorioak izango ditu, hain zuzen, Irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoari emandako zerga-pizgarriari buruzko Foru Arauaren lehen xedapen iragankorraren bigarren paragrafoan ezarritakoak.